

ERAIKIN-MAILAN ENERGIA-EFIZIENTZIA HOBETZEKO PROGRAMAREN LAGUNTZEN JUSTIFIKAZIOA. PROGRAMA 3

AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Laguntzen azken hartzaileek laguntzaren xede diren jarduketan gauzatzea instrukzio-organoaren aurrean justifikatu beharko dute. Horretarako, eta orokorrean, ondoko dokumentazioa aurkeztu beharko dute

<ul style="list-style-type: none">• Proiektua behar duten jarduketan kasuan, egiazki exekutatu den obraren proiektua.
<ul style="list-style-type: none">• Obra-bukaerako ziurtagiria, dagokionean. Obra-zuzendariak eta, hala badagokio, obra exekutatzeko zuzendariak sinatu beharko dute.
<ul style="list-style-type: none">• Instalazio termikoaren ziurtagiria, hala badagokio, instalazioaren zuzendariak edo baimenduriko instalatzaileak sinatua eta, RITE erregelamenduari jarraiki, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Proiektu Estrategikoen eta Industria Administrazioaren Zuzendaritzaren dagokion organoan erregistratua.
<ul style="list-style-type: none">• Jarduketak bukatu ostean lorturiko energia-efizientziako ziurtagiria. Jarduketa aurretiko ziurtagirirako erabili zen egiaztatze-sistema berbera aplikatu beharko da eta teknikari eskudun batek sinatu beharko du ziurtagiria. Organo eskudunean erregistratua egon eta laguntza lortzeko eskaturiko baldintzak betetzen direla egiaztatu beharko du..
<ul style="list-style-type: none">• Oinarri hauei jarraiki laguntzak deituzkoan eta laguntzak emateko ebazpenean ezarri diren baldintzak bete direla justifikatuko duen jarduketa-memoria. Gauzaturiko jarduerak eta lorturiko emaitzak adierazi beharko ditu. Aipatu memoria proiektua egin edo jarduketan exekuzioa zuzendu duen tituludun teknikari eskudun batek egin eta sinatu beharko du. Memoriak jarduketan bukaera-data zehaztu beharko du. Azkenik, aplikatzekoa den derrigorrez bete beharreko araudia bete dela egiaztatu beharko du ere.
<ul style="list-style-type: none">• Exekutututako obraren argazki-dokumentazioa, kolorez ahal bada.
<ul style="list-style-type: none">• Erantzukizunpeko adierazpena, diruz lagunduriko jarduera finantzatu duten beste dirusarrerak eta dirulaguntzak zehaztuz. Beren zenbatekoa eta jatorria azaldu beharko ditu.
<ul style="list-style-type: none">• Egindako jarduketei loturiko aginduen eta/edo kontratuen zerrenda ziurtatua eta kopia.
<ul style="list-style-type: none">• Egindako inbertsioari dagozkion eta aurkeztutako aurrekontuari eta kontratuei erantzuten dieten fakturen eta beren ordainketaren banku-frogagiriaren zerrenda ziurtatua eta kopia..
<ul style="list-style-type: none">• 100.000 eurotik beherako laguntza jaso duten proiektuen kasuan, hautazkoa izango da gastuaren frogagiriak barne izango dituen justifikazio-kontua aurkeztea, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamendua (aurreikusitako atalase ekonomikoak handitzeko 26/2020 Legegintzako Errege Dekretuko 63. artikulua aldatu duena) onartu zuen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartu zuen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 72. artikulua diotenaren arabera.
<p>Hautazkoa izango da ere auditoretza-txostena barne izango duen justifikazio-kontu bat aurkeztea, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak onartu zuen 17ko 38/2003 Lege Orokorraren Erregelamenduaren 74. artikuluan xedatutakoaren arabera.</p>